

ZURE ESKUBIDEAK ERREKLAMATZEKO

GIDA ERABILGARRIA



www.eginez.org



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

eginaren
eginez

AURKIBIDEA

SARRERA

- 1.- MERKATARITZA-JARDUERA PRIBATUETARAKO
LOKAL IRISTEZINAK
- 2.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ZERBITZU
PUBLIKOETARAKO HIGIEZIN IRISTEZINAK
- 3.- JABETZA HORIZONTALERAKO ETXEBIZITZA-
ERAIKINETAKO ELEMENTU KOMUN
IRISTEZINAK
- 4.- GOFEK AITORTUTAKO DESGAITASUN-EDO
MENDEKOTASUN-MAILAREKIN ADOS EZ
EGOTEA
- 5.- KUPOAREN ERRESERBA EZA DESGAITASUNA
DUTEN PERTSONEN ALDE, LAN-ESKAINTZA
PUBLIKOETA
- 6.- ERANSKINAK



Simón Bolívar plaza, 9 behe
01003 Vitoria-Gasteiz
T. 945 22 55 16
www.eginez.org

SARRERA

Gida honen xedea dibertsitate funtzionala duten pertsonen egoera desberdinetan beren eskubideak nola erreklamatu ditzaketen orientatzea da, ikuspuntu juridikotik eta exhaustibotasun-asmorik gabe.

Nolanahi ere, gida honek ez ditu aukera guztiak agortzen eta ez du egoeren azterketa xehatua egitea eskatzen, informazio orokorra ematea besterik ez du nahi. Askotan, erreklamazioa onartzeko, errekurtsio jakin bat aurkeztu behar izaten da eta/edo epe jakin batzuk errespetatu.

Horregatik, gida honek erreklamazio-formulario generikoak dituen arren, ez da gomendatzen ezagutza juridikorik ez duten pertsonen erabiltzea. Eskubiderik ez galtzeko, gomendagarria da aniztasun funtzionala duten pertsonak ordezkatzeko ditugun erakundeetako edo zuzenbideko profesionalengana jotzea, kasu bakoitzerako aholkularitza indibidualizatua lortzeko.

1

MERKATARITZA-JARDUERA PRIBATUETARAKO LOKAL IRISTEZINAK

Irigarritasun-baldintza teknikoak ez dira berdinak izango baldin eta 2010eko abenduaren 4a baino lehenagotik dagoen lokala bada, eta data hori baino geroago eraikitako edo eraikuntza berriko lokala bada. Nolanahi ere, kasuan kasuko udalei dagokie irigarritasunari buruzko araudia betetzen dela kontrolatzea, obrak egiteko eta jarduerak irekitzeko behar diren baimenak ematen direnean.

Kontu horri dagokionez, Zerbitzuen Erkidegoko Zuzentaraua barne-zuzenbidean sartzeak (besteak beste, zerbitzuak ezartzeko eta emateko beharrezkoak ziren prozedurak eta izapideak sinplifikatzea xede zuenak) ondorio hau ekarri zuen: kasu askotan, txikizkako merkataritzako eta/edo zerbitzuak emateko jarduerak egiten direnean, jarduera Administrazioaren aldez aurretiko

kontrolik gabe has daiteke; kasu horietan, lizentziaren orde, alde aurretiko erantzukizunpeko adierazpena/komunikazioa erabiltzen da eta Administrazioaren kontrola a posteriori egiten da.

Horregatik, lokal batean jarduera pribatu berri bat ezartzen denean eta lokala irisgarria ez denean, honako hau egin daiteke:

- erreklamazio-orria eskatu eta irisgarritasunari buruzko araudi teknika betetzeko erreklamazioa egin;
- horrez gain, lokala dagoen udalerriko Udalean irisgarritasun-araudia ez dela betetzen salatu, Administrazioak kontrol-jardura egin dezan; gida honen **1. eranskin** gisa, erreklamazio-formulario generiko bat erantsi da. Administrazioak irisgarritasun-lanak egiteko agindurik eman nahi ez badu edo, besterik gabe, eskaerari erantzunik ematen ez badi, administrazioarekiko auzien prozesura jo daiteke, hala badagokio, organo judizialek behartu dezaten Administrazioa dagozkion obrak egitera.

ADMINISTRATIO PUBLIKOAREN ZERBITZU PUBLIKOETARAKO HIGIEZIN IRISTEZINAK

Eraikin iristezin batean Administrazio Publikoak zerbitzu publikoa ematen duen kasuetan, bi kasu bereizi behar dira: batetik, 2010eko abenduaren 4an, arrazoizko doikuntzak egiteko aukera ematen duen lokal jakin batean eta data horretan bertan ezarritako zerbitzua izatea; eta, bestetik, data hori baino geroago ezarritako zerbitzua edo geroago eraikitako lokala izatea.

Kasuan kasuko administrazioan bertan egin daiteke irisgarritasun-araudia betetzeko erreklamazioa eta, hala badagokio, baita dagokion Udalean ere (emandako lizentziak bertan behera uzteko eta/edo dagokion egikaritze-agindua emateko). Gidaliburu honetako **2. eranskinean**, erreklamazio-formulario generiko bat dago.



Administrazioak uko egiten badio eskatutako obrak egiteari, edo obrak egikaritzeko agindua emateari (dagokionaren arabera), edo besterik gabe eskaerari erantzuten ez badio, administrazioarekiko auzien prozesura jo ahal izango da, organo judizialek behartu dezaten Administrazioa dagozkion obrak egitera edo obrak agintzera.

3

JABETZA HORIZONTALLEKO ETXEBIZITZA-ERAIKINETAKO ELEMENTU KOMUN IRISTEZINAK

A) Eraikin berriak badira (sustatzaileak obra jasotzen duenetik 5 urte baino gutxiagoko antzinatasuna dutenak), erosleak aukera hauek izango ditu:

- sustatzaileari eta saltzaileari elementu komunek irisgarritasunari buruzko araudi teknikoa betetzeko eskatu. Erreklamazioari erantzuten ez badio eta, ekintza preskribatu ez bada, eskatzaileak sustatzailearen eta saltzailearen aurkako judizio zibilera jo ahal izango du.
- eta dagokion udalari eskatu sustatzaileari hirigintza-lizentziak kentzeko irisgarritasunari buruzko araudia bete arte edo, halakorik ezean, egikaritze-agindua emateko (irisgarritasunari buruzko araudia betetzeko beharrezkoak diren obrak egiteko agindua emanez).

Nolanahi ere, profesional batengana jotzea gomendatzen da, inguruabarren arabera, dagokion erreklamazioa epe barruan egiteko.

B) Bestela, kasu bakoitzeko inguruabar zehatzen arabera (obra-mota eta aurrekontua -Erkidegoko gastu komunen aurrekontu arruntari eta Erkidegoak erabil ditzakeen laguntza publikoei dagokienez-), jabetza horizontaleko erkidego batean, irisgarritasun-lanak egikaritzea Jabekideen Batzordearen akordiorik gabe eskatu ahal izango da (Batzarraren erabakia nahitaetzko derrama banatzera eta haren ordainketa-baldintzak zehaztera mugatuko da), edo Batzordearen akordioa beharko

dute (eta, aldi berean, kasu bakoitzaren arabera, Batzordean behar den gehiengoa desberdina izango da).

Komunitateak obrak egiteari uko egiten badio edo Jabekideen Batzorderako deirik egiten ez badu, eskatzaileak Erkidegoaren aurrakako judizio zibilera jotzeko beste aukerarik ez du izango.

Jabetza horizontalaren arloko kasuistika eta, zenbait kasutan, erreklamazioak egiteko epe laburra kontuan hartuta, eskubiderik ez galtzeko, zuzenbideko profesionalengana edo aniztasun funtzionala duten pertsonak ordezkatzeko ditugun erakundeetara jotzea gomendatzen da, kasu bakoitzean aholkularitza indibidualizatua lortzeko.

Gidaliburu honen **3. eranskin** gisa Erkidegoko Lehendakariari bidali beharreko idatzizko formulario orokor bat erantsi da (burofax ziurtatuaren bidez eta jaso izanaren agiriarekin), irisgarritasun-lanak egiteko eskatzeko, Batzordearen akordiorik behar ez den kasuetan (baina azpimarratu behar dugu profesional batek gomendatu behar duela kasu bakoitzaren arabera jarduteko modua).

GOFEK AITORTUTAKO DESGAITASUN-EDO MENDEKOTASUN-MAILAREKIN ADOS EZ EGOTEA

GOFEn ebazpenak berak, pertsona bati aitortutako desgaitasun-edo mendekotasun-maila zehazten duenak, errekurtsio-adierazpen bat eduki behar du, eta bertan adieraziko da zein den errekurtsioa/erreklamazioa, eta zein organori eta zein epetan aurkeztu behar zaion.

Erreklamazio/errekurtsioari txosten medikoak, psikologikoak eta abar erantsi behar zaizkio, eta desadostasunaren eta GOFEn balorazioaren arteko beste edozein dokumentu edo proba.

4. eranskin gisa, lan-arloko jurisdikzioaren alde aurretiko administrazio-erreklamaziorako formulario generikoa erantsi



4

da. Nolanahi ere, profesional batengana jotzea gomendatzen da erreklamazioa egiteko, ez baitu balio osasuneko profesionalen edozein txostenek. Txostenak lege-irizpide batzuk bete behar ditu, GOFEn balorazioa eztabaidatzeko balio izateko.

KUPOAREN ERRESERBA EZA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDE, LAN-ESKAITZA PUBLIKOETAN

Lan-eskaintza publikoa onartzen duen Akordioan bertan, errekurtsio-adierazpen bat jaso behar da, eta bertan adieraziko da zein den aurkeztu beharreko errekurtsioa/erreklamazioa, zein organori dagokion eta zein epetan aurkeztu behar den.

Gidaliburu honen 5. eranskinean, erreserba-kupoa errespetatzen ez duen LEP bat onartzen duen erabakiaren aurkako erreklamazio-formulario generikoa dago. Hala ere, lan-eskaintza publikoetan ebazpen ugari argitaratzen dira (lan-eskaintza publikoaren onarpena, oinarri orokorrak, deialdiak eta oinarri espezifikoak, etab.) eta, gainera, zenbait administrazioek berariazko legeria bat dute, erreserba-kupoari eragiten dion erregulazio propioarekin; horregatik, erreklamazioa egiteko profesional batengana jotzea gomendatzen da, erreklamazioa araudi zuzena argudiatuz eta epearen barruan egiten dela egiaztatzeko.



1. ERANSKINA:

Salaketa-eredua Administrazioaren aurrean merkataritza-jarduera pribatuak egiten diren lokal iristezinei buruz

...(e)ko UDALARI (*edo dagokion administrazioari*)

..., adinez nagusia, ... NANA duena eta ... helbidea duena, ...(e) ko Udalaren aurrean (*edo dagokion Administrazioaren aurrean*) agertu eta honako hau adierazten diot:

Idazki honen bidez salatzen dut ...ko ...kalean dagoen merkataritza-lokalak, non, duela gutxi ireki den ... (*dagokion jarduera: jatetxeak, arropa-dendak, ile-apaindegiak... dagokionak*), ez duela irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen, honako arrazoi hauengatik: ..., ..., (*atzemandako ez-betetzeak zerrendatu: adibidez: sarreran eskailera-maila bat du, edo arrapala irisgarririk gabeko eskailera dituen sarreran, etab.*)

Horregatik eskatzen da ...ko ...kalean dagoen lokalean obrak egiteko eta jarduera gauzatzeko titulu gaitzaileak baliogabetzeko, atzera botatzeko eta ondorioz gabe uzteko (hirigintza- eta irekieralizentziak edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurretiko komunikazioak), irisgarritasunari buruzko araudi teknikoa ez betetzeagatik, irisgarritasunari buruzko araudi teknikoa betetzeko behar diren obrak egiteko agindua emateko eta irisgarritasunari buruzko araudi teknikoa betetzeko behar diren obra horiek egin arte, aipaturiko jarduera horrekin jarraitzea ezinezkoa dela adierazteko.

Azaldutako guztia kontuan hartuta,

ESKATZEN DUT.- Salaketa aurkeztutzat emateko, Gasteizko ... kaleko merkataritza lokalak, non, duela gutxi ireki den ... (*dagokion jarduera: jatetxeak, arropa-dendak, ile-apaindegiak... dagokionak*) ez duela irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia

betetzen eta, ondorioz, aipaturiko lokaleko obrak eta jarduera gauzatzeko titulu gaitzaileak baliogabetzeko, atzera botatzeko eta ondoriorik gabe uzteko, irisgarritasunari buruzko araudi teknikoa ez betetzeagatik, irisgarritasunari buruzko araudi teknikoa betetzeko behar diren obrak egiteko agindua emateko eta irisgarritasunari buruzko araudi teknikoa betetzeko behar diren obra horiek egin arte, aipaturiko jarduera horrekin jarraitzea ezinezkoa dela adierazteko. Eta bidezkoa den gainerakoarekin, justiziaz eskatzen dut... (*tokia*)-n, ...(e)ko... aren... (e)an (*eguna*).

SINATUA



2. ERANSKINA:

Administrazio Publikoaren aurrean aurkezteko salaketa-eredua, Administrazio Publikoak zerbitzu publiko bat ematen duen higiezin iristezinak direla eta

...(e)ko UDALARI *(edo dagokion administrazioari)*

..., adinez nagusia, ... NANA duena eta ... helbidea duena, ...(e) ko Udalaren aurrean *(edo dagokion Administrazioaren aurrean)* agertu eta honako hau adierazten diot:

Idazki honen bidez adierazten dut ...ko ... kalean dagoen eta Administrazio honek ... zerbitzu publikoa ematen duen higiezinak ez duela irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen, honako arrazoi hauengatik: ..., ..., *(atzemandako ez-betetzeak zerrendatu: adibidez: sarreran eskailera-maila bat du, edo arrapala irisgarririk gabeko eskailerak ditu sarreran, etab.)*.

Zerbitzu publikoa ematen den lokala izanik, irisgarritasunari buruzko araudia (aniztasun funtzionala duten pertsonen oinarritzko eskubideak bermatzeko araudia) ez betetzea diskriminatzailea da. Horregatik, Administrazio honi eskatzen diot *(hautatu aukera)*:

- *(idazkia zerbitzua ematen duen administrazioari berari zuzentzen bazaio)*: lokal horrek irisgarritasunari buruzko araudi tekniko bat betetzeko behar diren obrak lehenbailehen egin ditzan edo, halakorik ezean, zerbitzu publikoa eskuragarri dagoen beste higiezin batera eraman dezan.

- *(2010eko abenduaren 4az geroztik ezarritako zerbitzua bada, edo data horren ondoren eraikitako lokal batean badago, eta idatzia dagokion udalari zuzenduta badago)*: hirigintza-lizentziak, aipaturiko lokalean zerbitzua ematea baimentzen dutenak, baliogabetu, atzera bota eta indarrak gabe uzteko, irisgarritasunari buruzko araudi tekniko bat betetzeagatik, irisgarritasunari buruzko araudi tekniko bat betetzeko behar diren obrak egiteko agindua emateko eta irisgarritasunari buruzko araudi tekniko bat betetzeko

behar diren obra horiek egin arte, aipaturiko jarduera horrekin jarraitzea ezinezkoa dela adierazteko.

- *(2010eko abenduaren 4a baino lehen zegoen higiezin batean data hori baino lehen ezarritako zerbitzua bada, eta idatzia dagokion udalari zuzendu bazaio)*: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko 203.2 artikulua babesean, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta horien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategineko hirugarren xedapen gehigarriari dagokionez, eman dioezaiola egikaritzeko agindua ...ri *(zerbitzua ematen duen Administrazio Publikoa)* aipaturiko lokalak irisgarritasunari buruzko araudi publikoa betetzeko behar diren obrak lehenbailehen egin ditzan.

Azaldutako guztia kontuan hartuta,

ESKATZEN DUT.- Salaketa aurkeztutzat emateko, Administrazio honek ... zerbitzu publikoa ematen duen ... lokal/higiezinak ez duela betetzen irisgarritasun-arloan indarrean dagoen araudia eta, horren ondorioz *(hautatu aukera)*:

- *(idatzia zerbitzua ematen duen Administrazioari berari zuzentzen bazaio)*: lehenbailehen egiteko behar diren obrak, aipaturiko lokalak irisgarritasunari buruzko araudi tekniko bat betez edo, bestela, zerbitzu publikoa higiezin irisgarri batera eramateko.

- *(2010eko abenduaren 4az geroztik ezarritako zerbitzua bada, edo data horren ondoren eraikitako lokal batean badago, eta idatzia dagokion udalari zuzenduta badago)*: hirigintza-lizentziak, aipaturiko lokalean zerbitzua ematea baimentzen dutenak, baliogabetu, atzera bota eta indarrrik gabe uzteko, irisgarritasunari

buruzko araudi teknika ez betetzeagatik, irisgarritasunari buruzko araudi teknika betetzeko behar diren obrak egiteko agindua emateko eta irisgarritasunari buruzko araudi teknika betetzeko behar diren obra horiek egin arte, aipaturiko jarduera horrekin jarraitzea ezinezkoa dela adierazteko.

- (2010eko abenduaren 4a baino lehen zegoen higiezin batean data hori baino lehen ezarritako zerbitzua bada, eta idatzia dagokion udalari zuzendu bazaio): eman dioezaiola egikaritzeko agindua ...ri (zerbitzua ematen duen Administrazio Publikoa) aipaturiko lokalak irisgarritasunari buruzko araudi publikoa betetzeko behar diren obrak lehenbailehen egin ditzan.

Eta bidezkoa den gainerakoarekin, justiziaz eskatzen dut (tokia)-n, ...(e)ko... aren... (e)an (eguna).

SINADURA



3. ERANSKINA:

Jabetza horizontaleko etxebizitza-erakinetako elementu komunetan obrak egiteko eskaera jabekide-erkidegoari

... (E)KO JABEKIDE-KOMUNITATEAREN LEHENDAKARITZARI

..., adinez nagusia, ... NANA duena eta ... helbidea duena, ...n dagoen etxebizitzaren jabe gisa, ...ko Jabekide Erkidegoaren Lehendakaritzaren aurrean agertu eta honako hau adierazten dut:

Jabetza Horizontalaren Legeko 10.1. b) artikuluaaren arabera, nahitaezkoak dira, eta ez dute Jabeen Batzordearen aurretiazko adostasunik behar: *“b) Irisgarritasun unibertsalaren arloko arrazoizko doikuntzak bermatzeko behar diren obra eta jarduketak eta, nolanahi ere, desgaitasunen bat duten edo hirurogeita hamar urtetik gora dituzten pertsonak bizi diren, lan egiten duten edo zerbitzu boluntarioak ematen dituzten etxebizitza edo lokalen jabeek eskatutakoek, beren beharretara egokitutako elementu komun erabilera ziurtatzeko helburuarekin, bai eta orientazioa edo kanpoarekiko komunikazioa erraztuko duten arrapalak, igogailuak edo beste gailu mekaniko eta elektroniko batzuk instalatzea ere, baldin eta, dirulaguntza edo laguntza publikoak kendu ondoren, urtero jasanarazitako zenbatekoa gastu arrunten hamabi hil arrunt baino handiagoa ez bada. Obra horiek ez diote utziko nahitaezkoak izateari haien kostuaren gainerakoa, aipaturiko hilekoetatik haratago, eskatu dutenek beren gain hartzeak.*

Halaber, nahitaezkoa izango da obra horiek egitea, komunitateak eskura ditzakeen laguntza publikoak haien zenbatekoaren % 75era iristen direnean”.

Agertutako pertsonak ..., (*% 33 baino askoz gehiagoko desgaitasuna du aitortuta (... zenbakiko dokumentua), edo 70 urte baino gehiago ditu (... zenbakiko dokumentua), edo dagokiona.*)

... *zenbakiko agiri* gisa, ...(e)ko ... eraikinean irisgarritasun-
lan hauek egiteko proiektua erantsi dela. Obra horiek zentzuzko
doiketa dira, eskatzaileari bere premietarako elementu komun
erabilera egokia eta bereizkeriarik gabea ziurtatzeko beharrezkoak
direlako, eta ez delako zama neurrigabea edo bidegabea
inposatzen. ... *zenbakiko agiri* gisa, proiektu hori egikaritzeko hiru
aurrekontu erantsi dira. Horiek guztiek proportziozko kargatzat
jotzen denaren barruan geratzen den kostu osoa dute, izan ere,
urtero jasanarazitako kostuak (*hala badagokio, Erkidegoak eskura
ditzakeen ... euroko laguntza publikoak kenduta*) ez ditu gastu
arrunten hamabi hil arrunt gainditzen (*edo, hala badagokio,
eskatzaileak bere gain hartzen du gastu arrunten hamabi hil
arrunten gehiegizko kostua*).

Irisgarritasuna bermatzeko arrazoizko doikuntzen barruan
sartzen den obra dela eta zama neurrigabea ez dela kontuan
hartuta, Jabeen Batzordeak horiek egikaritzeko betebeharra du,
eta Batzordearen erabakia aurrekontua hautatzera eta kostua
ordaintzeko modua zehaztera mugatu beharko da. Horregatik,
idazki honen bidez formalki eskatzen da Jabeen Batzarra egitea,
eta gai-zerrendan sartzen dira adierazitako proiektua eta hura
egikaritzeko aurrekontuak aurkeztea eta horietako bat aukeratzea,
haren kostua ordaintzeko behar den derrama banatzea eta
ordaintzeko modua zehaztea.

Horrenbestez,

ESKATZEN DUT- Jabeen Batzarrerako deialdia ahalik eta lasterren egitea, eta gai-zerrendan sartzea bai adierazitako proiektuaren aurkezpena, bai hura egikaritzeko eta horietako bat hautatzeko aurrekontuak, hura ordaintzeko behar den derrama banatzea eta ordaintzeko modua zehaztea. ...*(e)*n,... (e)an (*data*).

SINADURA



4. ERANSKINA:

GOFek aitortutako desgaitasun- edo mendekotasun-mailaren aurkako erreklamazioa

ARABAKO FORU ALDUNDIKO GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN KUDEAKETA ZUZENDARITZARI

..., ... NANA duena, adinez nagusia eta... helbidea duena, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Zuzendaritza Kudeatzailearen aurrean agertu eta, Zuzenbidean bidezkoen den moduan, honako hau adierazten dut:

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (GOFE) zuzendari kudeatzailearen ...(e)ko ...aren ...(e)(a)n emandako Ebazpena jakinarazi didatela. Ebazpen horren bidez, alderdi honi aitortu zaio % ...ko desgaitasun-maila /% ...ko mendetasun-maila – *bidezkoa dena* – (i. dokumentua).

Ebazpen horretan ezarritako desgaitasun/mendekotasunaren azken mailarekin ados ez nagoenez, idazki honen bidez, administrazio-erreklamazioa jartzen dudala Ebazpen horren aurkako Jurisdikzio Sozialaren aurretik, honako hauetan oinarrituta:

- ALEGAZIOAK -

LEHENENGOA.-

BIGARRENA.-

(Atal hauetan, desgaitasun-/mendekotasun-maila handiagoa onartzea justifikatzen duten patologiak edo inguruabarrak azaldu behar dira, desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren edo mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuaren balorazio-irizpideei jarraiki, dagokionaren arabera).

Txosten medikoak eta/edo psikologikoak erantsiz gero, Osakidetza edo foru-sareko edo gizarte-zerbitzuen udal-sareko egoitza-zerbitzuei atxikitako profesionalek emandakoak izan behar dute, desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta

kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren edo mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuaren balorazio-irizpideei jarraiki, dagokionaren arabera. Gainera, agiri medikoak, psikologikoak, pedagogikoak edo bestelakoak ere aurkez daiteke, osagarri edo gehigarri gisa).

HIRUGARRENA.- Azaldutakoa kontuan hartuta, alde honek uste du % ...ko desgaitasun-maila / % ...ko mendekotasun-maila dagokiola, desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan edo mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan, dagokionaren arabera, xedatutakoaren arabera aitortu zaiona baino handiagoa.

Horrenbestez,

ESKATZEN DUT.- Idazki hau aurkeztutzat jotzen denez, onartzeko eta aurkeztutzat emateko ... Espedientean emandako ...(e)ko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (GOFE) zuzendari gerenteak emandako Ebazpenaren aurkako lan-arloko jurisdikzioaren alde zurretiko administrazio-erreklamazioa. Ebazpen horren bidez, alderdi honi aitortu zaio... % ...ko desgaitasun-maila / % ...ko mendetasun-maila - *bidezkoa dena* - (i. dokumentua) eta, ondorioz, dagozkion legezko izapideak egin ondoren, erreklamazioa aintzat hartzeko, erreklamazioaren xede den ebazpena baliogabetu, atzera bota eta ondoriorik gabe uzteko, eta ebazpen berria emateko, % ...ko mendekotasun-maila / % ...ko mendekotasun-maila aitortzen didana, eta bidezkoa den gainerakoarekin, justiziaz eskatzen dut Gasteizen ... (*Data*)

SINADURA

5. ERANSKINA:

LEPetan desgaitasuna duten pertsonen aldeko erreserbakupoa ez betetzearen kontrako erreklamazioa

A ... *(kasuan kasuko administrazioa, LEPa ateratzen duena)*

..., adinez nagusia, ... NANA duena, eta ... helbidea duena, ... ren *(dagokion Administrazioa)* aurrean agertu eta honako hau adierazten diot:

Jakin dudala ...ren Erabakiaren bidez onartu zela ...ko *(dagokion Administrazioa)* ... taldeetako lanpostuen lan-eskaintza publikoa ... urterako *(i. dokumentua)*.

Idazki honen bidez, akordio hori eta bertan onartutako lan-eskaintza publikoa inpugnatzen dutut, desgaitasuna duten pertsonen aldeko enplegu publikoaren eskaintzetan lanpostuen % 7ko erreserba-kupoa hausteagatik, honako honetan oinarrituta:

- ALEGAZIOA -

BAKARRA.- Onartutako lan-eskaintza publikoak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategineko (EPOE) 59.1 artikulua urratzen du; izan ere, desgaitasuna duten pertsonen aldeko plazen erreserba ez du arauan ezarritako % 7ra iristen.

Erreserba-kupoa hobetu egin daiteke (eta hori, gainera, desiragarria da, kontuan hartuta desgaitasunen bat dugunok enplegu bat eskuratzeko daukagun zailtasun berezia), baina ezin da ezarri deialdiko lanpostu guztien % 7 baino erreserba txikiagoa. Erreserba-kupoaren ehunekoa lanpostu hutsen gainean kalkulatu behar da, hau da, eskaintzako plaza guztien gainean (ez txanda bakoitzean erreserbatu gabeko plaza kopuruaren gainean).

... *(hala badagokio, bidezkoak diren argudio gehigarriak)*

Horrenbestez, bidezkoa da inpugnatutako akordioa eta hartan onartutako eskaintza baliogabetzea, atzera botatzea eta indarrik gabe uztea, eta LEP berri bat onartzea, lege ezarritako desgaitasuna duten pertsonen aldeko plazak erreserbatzeko kupoa errespetatuko duena.

Horrenbestez,

ERREGUTZEN DUT.- Idazki hau aurkeztutzat jotzen denez, onartzeko eta inpugnatutzat emateko ...ren Erabakia, ...ko (*dagokion Administrazioa*) ... taldeetako lanpostuen lan-eskaintza publikoa onartu zuena urterako, bai eta bertan onartutako LEP ere (*1. dokumentua*) eta, ondorioz, legezko izapideak egin ondoren, erabaki hori eta LEP baliogabetzea, atzera botatzea eta indarrik gabe uztea, eta LEP berri bat onartzea, desgaitasuna duten pertsonen aldeko plazak erreserbatzeko lege ezarritako kupoa errespetatuko duena, eta bidezkoa den gainerakoarekin, justiziaz eskatzen dut... (*tokia*), (e)ko ...aren ...(*e*)an.

SINADURA



ARAUDI INTERESGARRIA

- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irigarritasuna Sustatzekoa, Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irigarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen eta Eraikingintzaren Kode Teknikoa (DB-SUA 1 eta DB-SUA 9).
- Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina.
- 888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena; 174/2011 Errege Dekretua, otsailaren 11koa, mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duena; eta 36/2014 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, uztailaren 22koa, mendekotasun-egoera aitortzeko prozedura, desgaitasunaren kalifikazioa, garapenaren nahasmenduak edo jasateko arriskua, eta baldintza horietan Arabako Gizarte Zerbitzuen zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen, eta horien aldaketak.
- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta haren aldaketak).
- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea.
- Jabetza Horizontalaren Legea eta Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 24ko 117/2018 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskaritza teknikoari buruzkoa.

ARGITALPEN HONEN EDUKIA ARGITARATUTAKO EGUNEAN INDARREAN ZEGOEN ARAUDIAN OINARRITUTA DAGO. GIDA HAU GASTEIZKO UDALAREKIN (BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA) SINATUTAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN HITZARMENAREN 2023. URTEKO LANKIDETZA-ESPARRUAN ARGITARATU DA.